Azpeitiko Udala

**OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.**

**ZIURTATZEN DUT:** Udalbatza Osoak bi mila eta hogeita hiruko otsailaren zazpian, hitzez hitz jasorik honako hau dioen erabakia hartu zuela:

**4.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ETA AZPEITIKO UDALAK LOIOLAKO SANTUTEGIKO PARKEA MANTENTZEKO ETA KONTSERBATZEKO 2019AN SINATU ZUTEN LANKIDETZA LUZATZEKO ETA ALDATZEKO GEHIGARRIA.**

Aurrekariak:

GFA-k eta Azpeitiko Udalak 2019ko otsailaren 11n Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzako den Loiolako Santutegiko Parkea mantentzeko eta kontserbatzeko lankidetza-hitzarmena sinatu zuten, lau urterako. Hitzarmenak beste lau urtez luzatzeko aukera era ematen zuen, alderdien ahobatezko adostasunez.

Hitzarmenarekin bi administrazioek eremu hori kudeatzeko helburuak zehaztu zituzten, eta lau urte hauetan lortu den emaitza baikorra da bientzako. Orain, lau urterako luzapen berri bat adostu nahi da, honako aldaketak kontuan izanik:

-"kantina" izeneko etxolan dauden komun publikoak garbitzeko eta mantentzeko ardura Udalak hartuko du bere gain. Zerbitzu horregatik GFA-k Udalari egiten dion ekarpena 6.240 eurotan gehituko da. Guztira, beraz, 90.514 euro.

**OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, SECRETARIA DEL AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA.**

**CERTIFICO:** Que el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día siete de febrero de dos mil veinte tres, adoptó un acuerdo que copiado literalmente dice así:

4.- SUPLEMENTO DE PRÓRROGA Y MODIFICACIÓN DE LA COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA PARA EL MANTENIMIENTO Y CONSERVACIÓN DEL PARQUE DEL SANTUARIO DE LOIOLA EN EL AÑO 2019.

Antecedentes:

La DFG y el Ayuntamiento de Azpeitia suscribieron el 11 de febrero de 2019 un convenio de colaboración para el mantenimiento y conservación del Parque del Santuario de Loiola, propiedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa, por un periodo de cuatro años. El convenio permitía prorrogarlo otros cuatro años por acuerdo unánime de las partes.

Con el convenio ambas administraciones concretaron los objetivos para gestionar este ámbito y el resultado que se ha conseguido en estos cuatro años es favorable para ambas. Ahora se pretende acordar una nueva prórroga de cuatro años, teniendo en cuenta las siguientes modificaciones:

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

- El Ayuntamiento se hará cargo de la limpieza y mantenimiento de los aseos públicos ubicados en la caseta de la Cantina. La aportación de la DFG al Ayuntamiento por este servicio se incrementará en 6.240 euros. En total, por tanto, 90.514 euros.

- Urtean behin Udalak Aldundiari parkearen esparruan egin diren jardueren eta ekitaldien zerrenda bidaliko dio, bai udalak berak antolatutakoa, bai hirugarrnek antolatutakoak, udalak aldez aurretik baimendutakoa. Jarduera eta ekitaldi horiek bateragarriak eta egokiak izan beharko dute parkearen ingurunearekin.

Oinarrizko hitzarmenaren gainontzeko klausulak bere horretan jarraituko dute.

Eta kontuan izanik aldekoa dela Estrategia eta Hirigintza Batzorde berriemaileak emandako irizpena, Udalbatza Osoko kideek aho batez, eta beti ere legezko kopuruaren gehiengoarekin ONARTU DU:

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzako den Loiolako Santutegiko Parkea mantentzeko eta kontserbatzeko GFA-k eta Azpeitiko Udalak 2019ko otsailaren 11n sinatu zuten lankidetza-hitzarmena lau urtez luzatzeko 2023ko otsailaren 11tik 2026ko otsailaren 10era arte.

2.- GFA-k eta Azpeitiko Udalak 2019ko otsailaren 11n sinatu zuten lankidetza-hitzarmenaren GEHIGARRIA onartzea.

Honen baitan lankidetza-hitzarmenaren bigarren klausula "jarduketen definizioa" aldatuko da, Azpeitiko Udalarentzat honako jarduketa berri hauekin:

-"kantina" izeneko etxolan dauden komun publikoak garbitzeko eta mantentzeko ardura Udalak hartuko du bere gain. Zerbitzu horregatik GFA-k Udalari egiten dion ekarpena 6.240 eurotan gehituko da.

- Anualmente el Ayuntamiento remitirá a la Diputación una relación de las actividades y eventos que se han llevado a cabo en el ámbito del Parque, tanto organizados por el propio Ayuntamiento como por terceros, previa autorización municipal. Estas actividades y eventos deberán ser compatibles y adecuados con el entorno del parque.

El resto de la cláusula del Convenio Básico se mantiene.

Y teniendo en cuenta que el dictamen emitido por la Comisión de Estrategia y Urbanismo informante es favorable, por unanimidad de los miembros del Pleno de la Corporación, y en todo caso APRUEBA por mayoría de número legal:

1.- Prorrogar por cuatro años desde el 11 de febrero de 2023 hasta el 10 de febrero de 2026 el Convenio de Colaboración entre la DFG y el Ayuntamiento de Azpeitia para el mantenimiento y conservación del Parque del Santuario de Loiola, propiedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2.- Aprobar la ADENDA al Convenio de Colaboración suscrito el 11 de febrero de 2019 entre la DFG y el Ayuntamiento de Azpeitia.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

En el marco del presente convenio de colaboración se modifica la definición de las actuaciones de la cláusula segunda con las siguientes nuevas actuaciones para el Ayuntamiento de Azpeitia:

- El Ayuntamiento se hará cargo de la limpieza y mantenimiento de los aseos públicos ubicados en la caseta de la Cantina. La aportación de la DFG al Ayuntamiento por este servicio se incrementará en 6.240 euros.

Azpeitiko Udala

- Urtean behin Udalak Aldundiari parkearen esparruan egin diren jardueren eta ekitaldien zerrenda bidaliko dio, bai udalak berak antolatutakoa, bai hirugarrnek antolatutakoak, udalak aldez aurretik baimendutakoa. Jarduera eta ekitaldi horiek bateragarriak eta egokiak izan beharko dute parkearen ingurunearekin.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundiak urteko 90.514 €ko ekarpena egingo dio Azpeitiko udalari jarduketa horiengatik, honako partida edo baliokidearen kontura: 1 0520.210.211.00.01

4.- Alkatetzaren gain uztea dagokigun lankidetza-hitzarmena sinatzea Udalaren izenean.

5.- Erabaki honen berri Udalaren web orrian emango da.

*GEHIGARRIAri dagokion dokumentua espedientean jaso da.

Eta horrela jasoa gera dadin eta, Alkate Udalburuaren on-eritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila eta hogeita hiruko otsailaren hamarrean.

O.E.
ALKATEA,

Azpeitiko Udala
ALKATETZA

- Anualmente el Ayuntamiento remitirá a la Diputación una relación de las actividades y eventos que se han llevado a cabo en el ámbito del Parque, tanto organizados por el propio Ayuntamiento como por terceros, previa autorización municipal. Estas actividades y eventos deberán ser compatibles y adecuados con el entorno del parque.

3.- La Diputación Foral de Gipuzkoa aportará al Ayuntamiento de Azpeitia 90.514 €anuales por estas actuaciones con cargo a la partida 1 0520.210.211.00.01 equivalente.

4.- Delegar en la Alcaldía la firma del presente convenio de colaboración en nombre del Ayuntamiento.

5.- El presente acuerdo se hará público en la página web del Ayuntamiento.

* El documento correspondiente al SUPLEMENTO consta en el expediente.

Y para que así conste, expido el presente de orden y con el visto bueno de la Alcaldía Presidencia en la villa de Azpeitia a diez de febrero de dos mil veintitrés.

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA